

Bakea behar dugu

Bizitzeko askatasuna, elkarrekin bizitzeko askatasuna, erabakitze askatasuna

STEE-EILAS sindikatuaren balore eta ezaugarri nagusietako bat beren kideen aniztasun politikoan datza, eta bere ekimenaren zatirik handiena lan, gizarte eta irakaskuntza gaietan gauzatzen badu ere, beti du ikusmiran gizartearen eraldakuntza eta gure herriarekiko konpromiso tinkoa.

Ardatz horietatik ezinezkoa zaigu alde batean uztea bizi dugun egoera politiko. Duela hilabete batzuk itxaropenaz eta esperantzaz beteta agertzen zen egoera frustrazio eta etseipena bihurtu da. Denboran atzera egin eta irteerarik gabeko tunel batean murgildu garela ematen du. Transizioak konpondu ezin izan zuen gatazka politiko ankertu egiten dela ematen du eta ez dugu asmatzen konponbidea bideratzen.

Agertzen hasi diren gizarte-haustura elementuek kezkatzen gaituzte bereziki. Urtetan zehar elite politikoetan ardatza izan duen gatazka latza kalean nagusitzen has daiteke. Horregatik kontu handiz ibili beharko genuke gure jarrerak eta euron adierazpideak azaltzean. Gure ustez euskal gizarteak ez du ezer onik aterako liskar zibilaren bidetik.

Azken hilabeteotan gertatutakoa eta bereziki Lizarra-Garaziren inguruko dinamikak aztertzea oso lan interesgarria izango balitz ere, oso zaila egiten da. Hortaz, nahikoa izango dugu bi ebidentzia eta hausnarketarako eremua proposatzea.

1.- Lizarra-Garazi inguruan bildutako indarrek jarritako helburuak, horien artean bakea lortzea nagusia zelarrik, zerrendatuz gero, ez direla lortu onartu behar dugu.

2.- Dinamika horien aurrean PPK erakutsi duen gehiegizko zitalkeria eta erantzuna emateko orduan azaldu duen itxikeria egoskorra. PSOEK erakutsi duen autonomia eskasa PPK hartutako bidearekiko.

Hausnarketa puntua hauxe izango litzateke: PPK eman zuen erantzuna horixe izango zela gauza jakina zen. Arazoa da aztertzea euskal gizartean jarrera horrek izan duen oihartzuna, hau da, ulertzea zergatik PP ahuldu beharrean indarturik atera den azken hauteskunde deialdietan; egin ziren iragarpen triunfalistetatik oso urruneko egoera, gizartearen gehiengoak Lizarra-Garaziko indarrekin batera bilduko zela uste baitzen. Horrek sortzen digu bi eztabaida eremu gutxienez: alde batetik Lizarra-Garazi inguruan ezarri ziren dinamikak mugak, kalkulu okerrak eta eskasia posibleak; bestetik euskal gizartearen konplexutasuna, hau da gizartearen baitan dauden interes, sentipen eta identifikazio sinboliko guztiak.

Nolanahi ere, uste dugu atzera begiratzeak baino garrantzi handiagoa duela irizpide sendoak ezartzeak, gaur egungo egoera zailean erosoago (ahal den neurrian) ibili ahal izateko. Bakarka pairatzen dugun ezintasun sentipena gainditu behar dugu taldean hausnarketa egin eta, gai izango bagina, ekinemaren bat hartu ahal izateko.

Gure jarreraren oinarriak hauek izango lirateke:

1.- Giza eskubideekiko begirunea da Euskal Herrian elkarbizitza zibilizatua ezartzeko osagai oinarritzkoa. Ez estatu arrazoiak, ezta aberriaren defentsak ere, ezin justifika dezakete giza eskubideen urratzea.

2.- ETARI esijitzen diogu su-eten egonkor eta iraunkorra berriro ezartzea bakegintzan aurrerapausuak eman ahal izateko. Kezkaz beterik ikusten dugu bere ekintza militarren bilakaera. Gure herriaren zati handi bat bereganatu duen militantzia politikoarengatik edo defendatzen dituen ideietatik mehatxaturik dago, edo mehatxaturik sentitzen du bere burua. Horri gaineratu behar zaio kale borrokaren eragina, kale borrokak kolpatzen baititu, bere mailan, antzerako helburuak. Ideiak bakarrik ideiekin aldera daitezke. Nahikoa litzateke egoera hori pairatzen duen norbaiten larruan sartzea ulertu ahal izateko eztabaida, askatasun girorik gabe, ezinezkoa dela.

3.- PPKo Gobernuari esijitzen diogu kartzela politika aldatzea, presoak beren jatorrizko lekuetara eraman behar dituzte, eta libre utzi gaixotasun larriak dituztenak zein zigorraren bi herenak bete dituztenak. Proposatutako berri den zigorrak gogortzearen kontra gaude erabat. Zaila da gogorrago egitea berez oso gogorra den zerbait. "Audiencia Nacional" bezalako epaitegien salbuespen papera indartzea, epailearen aurrera joan aurretiko atxiloketa epe gehiegizkoak mantentzea, torturak ahalbideratzen dituen egoera bestalde (bi urtetan 28

pertsona hil dira Espainiako komisaldegietan), hilketa eta telefono-kabinak erretzea berdin kontsideratzea zigorrak ezartzeko orduan, ideien kriminalizazio gero eta handiagoa, adin gutxiakoen eskubideen aurkako neurriak (“Audiencia Nacional” epaitegira 14 urtekoak eramatea adibidez),... hartu nahi dituzten neurri horiek guztiek Zuzenbidezko Estatuaren bermeak higatu egingo dituzte eta askatasunak gutxitu zalantzarik gabe.

PP gerra irabaztearen politikan tematu da. Egoeraz baliatu da euskal nazionalismoa eta bere ideiak deslegitimatzen kanpaina basatia bultzatzeko, egotzen baitio nazionalismo orori idarkeriaren esistentzia bera. Era berean, berpiztu du nazionalismo espainol zaharkituena, eta prest dago bere ideologiaren punturik kuttunenak legeen bidez inposatzeko. Horren guztiaren aurrean STEE-EILASEk nabarmendu nahi du proiektu politiko demokratiko guztien legitimazioa, sindikatua horren defentsan arituko da. Era berean, STEE-EILASEk aniztasuna begirunez hartuko duen markoaren beharra azpimarratzen du proiektu horiek baldintza berdinetan plazan agertu ahal izateko.

4.- STEE-EILASEk berresten du elkarrizketaren eta itunaren bidezko aterabidearen aldeko apostua. Partidu politiko guztiei esijitzen diegu eser daitezela hitz egitera, harik eta garaiturik eta garailerik gabeko ituna lortu arte; itun horrek aniztasuna eta bakoitzaren nortasuna errespetatu behar du, eta guztiok onartutako markoa ezarri elkarbizitarako.

Hitzarmen horrek, pluraltasuna eta bakoitzaren nortasuna errespetatuta, marko demokratiko halako bat jarri beharko du proiektu guztiek baldintza beretan lehiatuta, irtenbidea emateko bizi dugun gatazkaren oinarrian dagoen arazo politikoari. Nolanahi ere den, bermatu beharrekoa da Euskal Herrian bizi garen gizon-emakumeek geure etorkizunaz erabaki ahal izatea.

Aniztasunaren eta guztion aldetik hastapen demokratikoen onarpenaren eremu horretan ezin ahaz ditzakegu Nafarroako eta Iparraldeko egoerak. Ezinezkoa da jarrera abertzaleen aurrerapausuez hitz egitea, lurralde horietako populazioaren borondateari begirunea espreski azaltzen ez bada.

Jakin badakigu gaur egungo egoeran aukera gutxi dagoela, agian aukerarik ez, guztion arteko elkarrizketa prozesu hori aurrera eramateko. Adi egotea beharrezkoa zaigu bide horretan emango den edozein urrats, nahiz eta mugatu edo kontraesankor izan, laguntzeko.

5.- Langileen sindikatua garen aldetik uste dugu proiektu politiko horietako edukin sozialek ezin dutela beti bigarren lekuan egon. STEE-EILASEk eraiki nahi duen Euskal Herrian ezinbesteko osagai hauek nahi ditugu: sexuen arteko berdintasun benetakoa, giza soldata ezartzea, enplegu egonkorra sortzea, 35 orduko lanaldia, segurtasun eta osasun egoera onak lantokietan, populazio guztiarentzako etxebizitza duinak, ingurugiroari begirunea, nazioarteko elkartasuna.

Indarkeriaren aurkako eta bakearen aldeko mobilizazioen aurrean STEE-EILASEk zer

Zaila da oso egon daitezkeen mobilizazio deialdien helburu, testuinguru eta une diferenteak aztertzea. Are gehiago kontuan hartzen badugu kasurik gehientsuenetan deialdiak “kanpotik”, esan nahi baita, gatazkan parte hartzen duten indar handien baitatik etorriko zaizkigula. Egoera beretsuan daude, zer esanik ez, beste sindikatu guztiak handiagoak direla agerian badago ere. Beste kontu bat izango litzateke zer egin daitekeen irakaskuntzaren esparruan, arazo horretaz beste atal batean arituko gara.

Konplexutasuna handia bada ere, gaian sartzen saiatuko gara:

1.- Ez guke inolako arazorik izango mobilizazio proposamenekin bat egiteko baldin eta gure jarreraren hiru ardatzak (su-etena, PPK duen politikatik aldentzea, elkarrizketaren errebindikazioa) bilduko balituzte. Baina oso zaila izango da horrelako mobilizazio garbiak ikustea. Agenda politikoa zehazteko baliabideak dituzten indarren jokamoldea ez doa bide horretatik. Nahiz eta gizartearen gehiengoak hipotetikoki prest egon proposamen horiei jarraitzeko, berauek gauzatu eta abian jartzea era operatiboan oso zaila da eta eskuzabaltasun maila handia eskatuko luke. Esandakoak ez du zertan oztopatu behar guk geure ekarpenak egitea, ahal dugun neurrian, bide horretan.

2.- Ohikoena, tamalez, gure jarreraren zati bat bakarrik bilduko duen deialdirik ikustea izango da. Kasu horietan guztietan erabil dezakegun irizpide bakarra izango da deialdia eta gure irizpideak alderatzea, ikusteko zein puntutaraino gurea deialdi zehatz horretan bildurik dagoen ala ez. Lan hori egitea ez da beti erraza, eta eskatzen diguna zera da: testuinguruaren azterketa zehatza egitea, une politikoarena, deialdia egiten duten indarrena, deialdiaren inguruan dauden interesena...

Gure irizpide oinarritzkoetatik baten bati ezezko borobila ematen bazaio ondorioa argi eta garbi egongo zen.

Zailena iritsiko da anbiguotasunarekin, auzitan dagoen gauzaren bat, zatiren bat, ixiltzen denean adibidez. Zalantza handiko kasuetan ez dugu inolako beldurrik izan behar plazan agertzeko gure jarrerak osoki azalduz, eta sindikatukide bakoitzaren eskuetan utziz deialdi zehatz batean parte hartzeko edo parte ez hartzeko aukera.

Indarkeria eta irakaskuntza, zer egin

Badirudi ez dela alferrikakoa gogoratzea STEE-EILASEk izan duen jarrera aldagaitza hezkuntz sistemak aniztasun ideologikoaren aurrean mantendu beharreko jokamoldeaz. Bere sorreratik STEE-EILASEk defendatu izan du ikastetxe guztiek bildu behar dutela beren baitan ingurunean dagoen aniztasun ideologiko, etniko eta soziala. Dena dela, paradoxa handia da gogoratzea gaur egun aniztasunaren defentsan aritzen diren horiek izan direla hezkuntz sistema baztertzailaren bultzatzaileak, ikastetxe desberdinak sortu baitzituzten desberdintasun erlijioso, sozial eta nazio identitatezkoak oinarri harturik, den-denak diru publikoaz orniturik, jakina.

Hezkuntz eremu berean ideologia desberdinen elkarbizitzak onura asko dakar: ematen diren istilu eta talkei aterabidea bilatzeko mekanismoak garatzen laguntzen du; kontrako jarreraren ezagutza eta jarrera horiekiko begirunea errazten ditu; norberaren ideologiaren alde asko (gehienbat bestearantz onartezinenak direnak) araztu eta fintzeko baliogarria da. Bakartzeak enkistamendua dakar eta elkarrizketarako aukerak mozten ditu.

Zentzu horretan azpimarratu behar dugu ikastetxe batzuk oso anitzak direla, batez ere sare publikoan, eta haietan garatu diren elkarbizitzarako esperentziak ezin ditugula inolaz ere ahantzi.

Ikastetxeak eta indarkeria gaian sartu baino lehenago fenomenoaren dimentsionatu behar dugu. Hedabide batzuk errealitatearekin zerikusi gutxi duen irudi sentsazionalista eta desitxuratua islatzen ari dira aspaldidanik. Egon, badaude arazoak; baina esan genezake, gaur egun, batzuek nahi dutena baino garrantzi txikiagoa duela afera honek guztiak.

Alde batera utziko dugu indarkeria “soziala”, izen bat erabiltzearen, eta zuzenean joko dugu politikarekin lotuta dauden indarkeria fenomenoetara. Gaian gehiegi sakondu gabe, beste abagune baterako utziko dugu hori, ondoko bi puntu hauek nabarmentzea interesatzen zaigu:

1.- Desberdintasun ideologikoak ebazteko mehatxuez, bortxaz, irainez edota eraso fisikoez baliatzea onartezina da guretzat. Elkarrekiko begirunearen eta elkarrizketaren alde apostu egiten dugu, horrela hoztasun gehiagoz ikusiko dugu zer den batzen eta banatzen gaituena. Egoera horretan bakar-bakarrik pentsamendu kritikoa erradikala garatu ahal izango da. Ideiengatik beren buruak mehatxaturik ikusten dituzten guztiekiko elkartasuna adierazi nahi dugu.

Ikastetxeetan dagoen hurbiltasun fisikoak, eskola komunitatearen ezagutza gertukoak mehatxuak eta erasoak burutzen dituztenekin harreman zuzena izateko aukera ahalbideratzen dute kasu askotan. Aukera horiek profitatu egin behar ditugu. Nahiz eta ez onartu hezkuntz sistema dela arazo guztientzako irtenbidea, askotan entzuten dena, ezin uka dezakegu irakaslearen ardura. Ez gaitezten ixilik egon, kritikari heldu egin behar diogu, eta ongi egin. Ikasleengandik *gertu* gaudenez, badugu aukera moduko bat gure iritzia entzun eta kontuan har dezatela.

2.- Uste dugu aterabidea ez dela askatasunak gutxitzea ikastetxeetan, edo ikasleen eskubideak txikitzea, edo errepresioaz baliatzea. Horren kontra gaude. Uste dugu oso positiboa dela demokrazia gehiagotzea eskola, institutu eta fakultateetan. Adierazpen askatasuna arautzea, greba askatasuna, bilerak eta asanbladak egiteko askatasuna, sektore guztien partaidetza benetakoa ikastetxeetako kudeaketan... Askatasun marko zabalak bakar-bakarrik uzten ditu arrazoirik gabe jokamolde bortxazkoak.

Proposamena: Idarkeria politikoa eta hezkuntz sistemari buruzko Jardunaldiak antolatu. Helburuak ondoko hauek izango lirateke:

- Fenomenoa aztertu, ikusi nola heldu arazoari eta lan ildoak.
- Irakaskuntzan “Bakearen aldeko Mugimendua” sortzeko posibilitatea aztertu, kontuan hartuz mugimendu horrek jarrera propioak izan beharko lituzkeela.